

## GIL 64 Pozalaguako leizea



Estalaktita eszentrikoen kontzentrazioa.

### Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 15' 42'' N

Long.: 3° 23' 14,27'' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 468.566,42 m

Y: 4.789.945,33 m



### Nola iritsi

Balmasedatik, joan Karrantzaraino BI-630 errepidean. Zubian, biratu Ranero auzorantz, eta hartu BI-4679 errepidea. Herria pasatu eta bi kilometro ingurura dago Pozalaguako leizerako sarrera.



Pozalaguako zutabea eta estalaktita-kontzentrazioa.

## GILaren deskribapen laburra

Pozalaguako leizea Ranero mendigunean dago (Bizkaiko mendebaldean), Aptiar-Albiarreko (Behe Kretazeoa) sedimentuen arkitektura ondoen ikusten den eremu geografikoetako batean. Mendiguneak, kareharriez gain, beste litologia karbonatatu bat du: dolomiak. Ranero mendigunearen litologia bikoitza agerian dago modelaketa karstikoan. Kareharriek poro gutxi dute, eta haustura-ingurune bat behar dute porositate pixka bat sortzeko. Paisaia karstiko nahiko eboluzionatua da; lapiaza, luzetarako arrakala sakonak, hobiak eta poljeak ditu. Dolomiek, berriz, testura kristalinoa eta mikroporositate handia dute, eta disoluzio txikiagoa eragiten die euri-ur azido samarrak. Haien azalratze naturalak ez dira hain malkartsuak, ez dute erliebe oso handirik, eta hareatze bidezko meteorizazio-prozesua nagusitzen da (testura kristalinoa disgregatu, eta harea lodiko frakzioko sedimentua sortzen da). Pozalaguako leizea ia erabat dolomia-gorputzean garatutako barrunbe bat da.

Ez da oso leize handia (100 m luze, 50 m zabal eta 20-30 m garai); 1957an aurkitu, eta 1991an ireki zuten publikoarentzat. Zalantzarik gabe, espeleotema-moten ugaritasunagatik —prezipitazio kimikoko prozesuen ondoriozko formazioak dira—, grabitatea dela-eta askatzen diren bloke handiengatik eta gaur egungo zoruagatik nabarmentzen da. Zorua kolada motako espeleotemaz estalia dago; espeleotemak fosilizatu egin dira, eta ezkutuan gorde dute aurretiko estratigrafia; leizearen azken betetze-faseak soilik utzi dituzte agerian. Leizearen zoru azpiahorizontala ez da barrunbearen oinarria, baizik eta betetze-faseetako baten sabaia. Guztira, 7 formazio-fase bereizten dira (López-Horgue, *et al.*, 2010).

## Behatzeko punturik onena

*In situ*. Leize turistikoa da.

## Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL16, GIL17, GIL18, GIL 67, GIL 107, GIL 138, GIL 144, GIL 145, GIL 146.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 61, GIL 65, GIL 66, GIL 67, GIL 68.

## GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
<b>Interes zientifikoa</b>	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa		●		
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				●
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
<b>Interes ekonomikoa (erauzketa)</b>			Iraganean	Potentziala	Martxan
<b>Interes kulturala:</b>					
<b>Oharrak:</b>	Eszentrikoen kontzentrazio handia dela eta, interes zientifiko oso handia du koba turistiko honek.				

## Bibliografia espezifikoa

- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/60-I-III.pdf>
- M. A. López-Horgue, *et al.*, 2010. "La Cueva de Pozalagua (Karrantza, Bizkaia)". In: J. J. Durán eta F. Carrasco (arg.), Cuevas: Patrimonio, Naturaleza, Cultura y Turismo, 383.-396. or. Madril. Asociación de Cuevas Turísticas Españolas.